


DURANGOKO OINEZKOEN HARRAPAKETEN %70AK DISTRAKZIOA DUTE MOTIBO NAGUSI

- Durangoko Udalak eredu jasangarri baten aldeko apustu estrategikoa XX. mendearen bukaeran (1998-2004) hasi zuen, Alde Zaharraren peatonalizazioarekin
- 2006. urtetik, eta mugikortasun jasangarrian eta segurtasunean eredu diren hirietan oinarrituz, Udalak ekintza desberdinak jarri ditu martxan
- Semaforoak kendu direnetik 3 aldiz gutxitu dira oinezkoen harrapatzeak. Durangoko bide-segurtasuna Bizkaiko batez bestekoaren gainetik dago oso

Durango 2016 11 29

Gaur goizean, Aitziber Irigoras, Durangoko Alkateak, Gobernu taldeko zenbait kiderekin batera, Udalak azken 20 urteetan, jasangarriak eta seguruak diren hiri mugikortasun politikak garatzeko helburuarekin ekindako bidea, estrategia eta ekintzak biltzen dituen txostena (datu konkretuekin) aurkeztu du udalbatza-aretoan

Durangoko Udalak eredu jasangarri baten aldeko apustu estrategikoa XX. mendearen bukaeran (1998 - 2004) hasi zuen, Alde Zaharraren peatonalizazioarekin. Era berean, 2004 eta 2005 urteetan zehar barne edo herri trafikoa kutsaduraren eragile nagusia zela ondorioztatu zuen diagnostikoa jarri zuen martxan. Modu honetan, Durangoko Udalak, lehenik, Airearen Kalitate Plana; aurrerago, Mugikortasun Jasagarriaren Plana (2010-2025) eta azkenik, Agenda 21 Plana (2013-2020) onartu zituen.



PRENTSA OHARRA

Gogoratu beharra dago Durangok Euskadiko 2014ko Udalerri Jasangarriaren saria eskuratu zuela iaz, Tokiko Agenda 21en bikaintasunagatik. Klimarekin duen konpromisoa hainbat ekintzaren bidez erakutsi du: udalerriaren kudeaketa energetikoa, mugikortasuna, hondakinen kudeaketa edota biodibertsitatea.

Azkeneko hamarkadan martxan jarritako ekintzak

2006. urtetik, eta mugikortasun jasangarrian eta segurtasunean eredu diren hirietan oinarrituz, Udalak ekintza desberdinak jarri izan ditu martxan. Nabarmentzekoak dira:


- Erdiguneko trafikoa zentzu bakarrekoa bihurtu eta gehienezko abiadura 30ean ezarri
- Semaforoek kentzea eta errotonda, beheargune, goratutako eta pertsonentzako helduerrazak diren zebra bideen instalazioa
- Zumalakarregi kalearen peatonalizazioa asteburuetan
- Ibilgailuen ezker-alderako birak kendu, kontrako zentzua duten bideak gurutzatuz
- Bizikletentzako bidegorri sarea
- Argiztapenaren apurka-apurkako hobekuntza, altuerak jaitsiz eta argi efizientzia hobetuz
- Bide-hezkuntza programaren hobekuntza, oinezkoarekiko hezkuntzak eta bizikletaren erabileran oinarrituz

Semaforoek kentzea: harrapatzeak 3 aldiz gutxitu

2006. urtera arte, Durangon 148 semaforo zeuden, eta azkeneko 8 urteetan, kendu izan dira. Erabakia bide-segurtasunean erreferente diren hiriak aztertu ostean hartu zen, besteak beste: Copenhague, Berna, etab.

Erabaki honi esker, bizikletaren erabilera %0,7tik (2006) %8ra (2015) igo da, kotxearen erabilera herri mailan %30etik (2006) %15era jaitsi da eta airearen kalitatea ere asko hobetu da. 2006an 206 egun zeuden aire kalitate onarekin, 2013an 345; 2014an 361 eta 2015ean 354.

Era berean, bidezko istripu kopurua nahiko gutxitu da. 2000. urtetik 2007ra kotxe bat tarteko izan duen istripuen batez bestekoa 228 izan da, 2003an, 389 eta 2005an, aldiz,



PRENTSA OHARRA

165. Era berean, 2008. urtetik 2015era 126 istripu egon dira, batez beste, 2008an 157eta 2014an 110.

Durangoko bide-segurtasuna Bizkaiko batez bestekoaren gaintik dago oso, izan ere, semaforoak kendu direnetik 3 aldiz gutxitu dira oinezkoen harrapatzeak.

Durangoko oinezkoen harrapaketen analisia

- **1990-2003:** 10,1 oinezkoen harrapaketa 10.000 biztanleko.
- **2004-2013:** 2,9 oinezkoen harrapaketa 10.000 biztanleko.
- **Gaur egun*:** 2,8 oinezkoen harrapaketa 10.000 biztanleko, Bizkaiko udalerrien batez bestekoa kontuan hartuta (5,31 harrapaketa 2004-2013), oso azpitik kokatzen da.

**(2016ko azaroaren 3ra arte)*

Durangon gertatzen diren oinezkoen harrapaketen %70ak, distrakzioak dute motibo nagusi, batez ere telefono mugikorrek erlazionatutakoak:

- **2015:** 8 harrapaketa
 - 0: argiztapen falta
 - 0: alkoholaren eragina
 - 0: itsutzeak
 - 2: abiadura desegokia
 - 1: bira desegokia
 - 5: distrakzioa gidaritzan (4 telefono mugikorrarekin)
- **2016:** 16 harrapaketa (2016ko azaroaren 21era arte)
 - 1: argiztapen falta
 - 1: alkoholaren eragina
 - 2: eguzki izpien itsutzea
 - 12: distrakzioa gidaritzan, batez ere, telefono mugikorraren erabileragatik

Informazio gehiagorako:

Iñigo Aranbarri

688 621 860

aranbarri@sormen.eus